

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko azaroak 6 • 132. zka.



Batzokiaren erasoak gobernua apurtu



SUPER - 55 OPARIEN HURRRENGO EMANALDIA 1998ko MARTXOA

**Handitu ezazu zure saldoa zure Super 55 Libretan,
interesetan %4raino irabazi ezezik
OPARI ZIUR bat emango dizugu.**

**GALDE EZAZU SUPER - 55 BEZEROENTZAKO
ESKAINTZA BEREZIA
EPE FINKORAKO EZARPENAREKIN**



Zer daukazu esateko batzokiari egindako erasoari buruz?

Tomas Ribera

(Langilea)

Oso txarto iruditzen zait, horrelako ekintzek ez dute inora eramaten. Herria gehiago zaindu beharko litzateke eta politikoei erantzunkizun bat hartu beharko lukete horrelako ekintzen aurrean.



Lucia Carrasco

(Langilea)

Oso gaizki iruditzen zait. Horrelakorik ez da egin behar. Politikoentzat ere zaila izan behar du horrelako arazoei irtenbidea ematea. Ez da erraza.



Mila Arakama

(Langilea)


Oso txarto. Ez da erraza horri konponbidea emateko zer egin behar den pentsatzea. Politikan lan asko dago egiteko. Bakoitzak bere alderdia defenditzen du eta irtenbide batera heltzeko, pauso bat eman behar da.



Iñaki Garmendia

(Langilea)

Azkenengo entzun dudaren arabera badirudi damutu egin direla. Erantzun logikoena iruditzen zait.



eskutitza



Nora doa herriko kirola?

Lehenik eta behin, bi urte eta erdi hauetan nirekin aritu diren Gimnasiako pertsona guztiei eskerrak eman nahi diet gai honetan agertutako laguntza jarreragatik, eta bereziki Aretxagazetako aurreko alean agertutako hitzak idatzi zutenei. Benetan, eskerrik asko.

Bestalde, argi utzi nahi dut ez nagoela ados Udaletxeak burututako hautaketa prozesuarekin arrazoiak kanpo gelditzen diren gertakizun ugari sortu baitira, hala nola, lehenengo frogan Administrazio Publikoan lan egiteko euskera eskakizun maximoa eskatu (euskara oso ondo zekiten zenbait pertsona kanporatuz) eta ondoren azterketak erderaz egiteko aukera eman, azterketak zuzendu dutenak Aretxabaletako kirol errealtateari buruzko ezagupenik ez izatea, zenbait herritarrek (Gimnasiako kolektiboak) gai honi buruz eginiko galderei modu txarrean erantzutea, gaiari buruzko esperientzia azkenengo puntu bezala baloratzea, azken frogarako 16tik 2 besterik ez gelditzea (biak kanpotarrak)...

Baina batez ere, hautaketa prozesu honetan nik egindako laugarren azterketa azpimarratu nahi nuke, ez bainago ados jarritako notarekin. Galdera Aretxabaletako kirol instalakuntzen gestioari buruzkoa zen, (azken 4 urteotan mota honetako lanetan aritu naizelarik Arrasaten eta Eskoriatzan) eta jarritako nota 20tik 5 puntu. Horregatik azterketa berriz zuzentzea eskatu nuen, nire presentziaz noski, eta oraindik zuzentze hori itxioiten ari naiz, urriaren 16an Osoko Bilkurak hori egitea onartu bazuen ere. Prosezua bukatutzat eman da eta kirol teknikari berria lanean dago jadanik, eta hori gutxi balitz niri abisatu gabe pertsona berri hori zetorrela.

Guzti hau ikusita, normala da Aretxabaletako Udalak herrikoa den eta bertan bi urte eta erdian lanean aritu den pertsonarekin horrelako jarrera izatea eta honen ondorioz lana kanpotar bati ematea?

JOSE LUIS ERAÑA
SOIN HEZKUNTZAKO LIZENTZIATUA



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Publizitate arduraduna:** Rosa Mondragon. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Astebukaera honetan hasiko dira zine emanaldiak

“Hombres de negro” abuztuan estreinatu berria den pelikularekin zabalduko ditu atea Zaraia zinemak. Cruz Maria Ansoalde Azkoi-tiako enpresa izango da ostera ere Zaraia zinemaren gestioaz arduratuko dena. Ansoaldek berak azaldu digunez, pelikula interesgarri batekin hasi nahi izan du denboraldi berria: “jendeak zinea eskatzen du herrian eta froga berria egitera goaz”. Emanaldiak lehen bezala jarraituko dute, sei emanaldi izango dira guztira, horien artean domeketan umeei zuzendutako pelikula botako da.

Abenduan ekipoa berriztu

Abenduan aretoak soinu aldetik dituen arazoak konpondu eta proiektioareko tresna berria erosi da. Inbertsio garrantzitsu honekin pelikulen proiektioak asko hobetuko dira eta beste zine batzuren kalitatea izango dute. Tresneria oso ona jarriko da, bafle bat beharrez hiru jarriko dira pantailaren atzean eta beste 10-12 salan. Berrikuntza hauek abenduan egingo badira ere, zinerako ohitura berreskuratzen joateko aurrean aipatutako moduan astebukaera honetan zabalduko ditu atea Zaraia zinemak.



Degurixarako bideko itxituraren helburua bete da hein haundi batean

Datorren urteko otsailean bi urte beteko dira Degurixarako bidean, Ugaztegi baino gorago, trafikoa ez pasatzeko itxitura bat jarri zenetik. Bertako jabeek Udalari egindako eskaeraren ondoren, honek premia-koa ikusi zuen itxitura ezartzea, alde batetik, Degurixara joaten zen kotxe eta motor trafikoa haundia zelako eta natura gutxi errespetatzen zelako zenbait kasutan. Udaleko zinegotzia den Jesus Kortabarría baikor agertu da ikusitako emaitzaren ondoren, “bertako artzaiek horrelako lasaitasunik ez dutela ezagutu esan digute”, hala ere gehitzen du “motorren aldetik errespetu gutxi dago eta itxiera sarritan apurtuta aurkitu dugu”. “Udalaren nahia ez da inor izorratzea izan” Kortabarríaren berbetan, eta Udalak itxitura zabaltzeko baimena eman die beharra dutenei. Beste zenbait kasutan ere, Udalari itxitura zabaltzeko arrazoizko idatziak aurkeztu zaizkio eta Udalak baimena eman du gora igotzeko.

Beraz, esan daiteke itxitura jarri zenetik, hainbat alditan apurtu bada ere, hein haundi batean helburua beteta ikusi dela.

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

ESKORIATZA

Tfno 714 345



Bazkari eta afariak

MENDIOLA
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

EXTRA

Deba Garaiko kazeta

Astearte, ostegun eta larunbatero kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23
218 postakutxatila
Tel: 79 82 68
Fax: 79 43 03

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-
Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina


ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

Gasteiz-Eibar autopistaren trazaketaren inguruko alegazioak Foru Aldundira aurkeztu dira

Udalak proposatutako aldaketan Apotzaetxebarri auzoa tunel batez zeharkatuko litzateke. Auzotar eta lur jabeengatik 34 alegazio jaso dira guztira



Gasteiz-Eibar autopistaren trazaketaren inguruko alegazioak aurkeztu ditu Udalak Foru Aldundira. Udalak egindako alegazioaz gain, auzotarren eta lur jabeen beste 34 alegazio jaso dira.

Udalak aurkeztutako alegazioak Apotzaetxebarri auzoa tunel baten bidez zeharkatzea proposatzen du, modu honetan, Apotzaetxebarriko malda libre utziaz, lur honek etorkizunean hiri garapena izango duelako. Aldaketa honekin egungo proiektuak Apotzaetxebarriko hego-

ekialdeko maldan izango duen begietako inpaktua gutxitu nahi izanda eta baita Landeta eta Antxustegi baserrien paretik pasatzean trafikoak eragingo duen inpaktu akustikoa ere.

Proposatutako aldaketak autopistaren ardatza herritik urrunduko du, Basagoitiko zubibidea ipar-mendebalderuntz 70 metro lekualdatuz. Autopistaren trazaketa Egi-leor baserria baino gorago, hau da, ipar mendebalderago pasatuko da.

Sailuenteko (San Blas) ermita

azpitik aurrikusita dagoen tunelaren kokapena ere aldatzea suposatzen du. Trazaketa Apotzaetxebarriko auzoaren ipar mendebaldeko maldatik tunel berri baten bidez iragan-go litzateke, Antxustegi baserriaren azpitik.

Azkenik aipatutako aldaketak San Bernabeko lotunea ere ipar-mendebalderago kokatuko du.

Alegazioak Foru Aldundira aurkeztu diren arren, gaia konplexua dela ikusita erantzunak luze joko du.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

IX. Loramendi literatur lehiaketa aldaketa berriekin dator

Ipuin, kantu, kontu zahar eta abarren bilketa lehiaketa antolatu da

Loramendi Elkarteak Eskolarteko IX. Loramendi literatur lehiaketa antolatu du. Bi atal desberdin izango ditu aurtengo honetan: lehen hezkuntzari begira ipuina eta poesia eta DBHrako ipuin, kantu, kontu zahar, etabarren grabazioa lehiaketa.

Ipuin eta poesia lehiaketan Aretxabaletan ikasi edo bizi den edonork har dezake parte. Lan guztiek argitaratu bakoak eta euskaraz izan beharko dute eta pertsona berak ezingo du lan bat besterik aurkeztu. Bi maila egongo dira: Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloa eta maila bakoitzean D eta B eredu.

Lanen luzera 2 orrialdekoa izango da gutxienez eta gaia librea. Lanak "Eskola arteko IX. Loramendi Literatur Lehiaketa" izenburuaz, Loramendi elkartearen entregatu behar dira abenduaren 20a baino lehen.

Sariak, 1997ko urtarrilaren 22an banatuko dira arratsaldeko 7etan Loramendi lokalean. Bonotan emango dira eta partaide guztiek jasoko dute saria.

DBHkoentzat lehiaketa berria

Aurreko urteetan DBHko ikasleen partaidetza txikia izan dela kontutan hartuta, hauentzat lehiaketa berria antolatu da: ipuin, kantu, kontu zahar eta abarren bilketa. Berrikuntza honekin 12tik 16 urtera bitartekoen partaidetza haunditu nahi izan da. Gainera Loramendi elkarteak herriko euskalkia, kontu zaharrak, ohiturak... berreskuratzen joateko aproposa izan daitekeela uste du.

Modalitate berri honetan, Aretxabaletan ikasi edo bizi den edonork har dezake parte. Lan guztiek euskarazkoak eta argitaratu bakoak izan beharko dute eta pertsona batek ezingo du lan bat baino



gehiago aurkeztu. Bi maila egongo dira: DBHko lehen eta bigarren zikloa.

Lanak taldeka zein bakarka aurkeztu ahal izango dira, audio-zintetan grabatuta eta horrekin batera grabaketari dagokion aurkibide bat Din A-4 orri batean. Grabaketak 30 minututakoa izan beharko du gehienez.

Lanak "Eskola arteko IX. Loramendi Literatur lehiaketara (nagusiak)" izenburuaz, Loramendi elkartearen aurkeztu beharko dira. Aurkezteko epea abenduaren 20an bukatuko da.

Sari garrantzitsuak egongo dira: DBHko lehen ziklokoentzat lehen saria 20.000 pta; 2.a 15.000 pta. eta 3.a 10.000 pta. DBHko 2. ziklokoentzat lehengo saria 30.000 pta; 2.a 20.000 pta eta 3.a 10.000 pta.

Sariak urtarrilaren 22an arratsaldeko 8etan banatuko dira. Informazio gehiago 77 09 70 telefonoan.

Akordeoi orkestrak lehen eta bigarren Strasburgoko ekitaldian



Herriko bi akordeoi orkestrak bikain ibili dira Strasburgon burutu den nazioarteko akordeoi lehiaketan. Luis Mari Elkorobarrutiaren taldeak lehen saria eskuratu du eta Juan Jose Oroben-goarenak, berriz, bigarrena. Domekan goizean Elkorobarrutiak zuzendutako taldeak parte hartu zuen lehiaketa eta arratsaldean Oroben-goarenak.

Talde biek zoriontzeko eta txalotzeko lana egin dute, emaitza horretan isladatu da taldeek duten maila eta hori lortzeko egin duten lan guztia, ondo merezitako jakina.

Eguazten ilunkaran, Parisen bi egun pasatu osatean itzuli ziren etxera.

Zorionik beroenak!

EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (4)

Mustelidoak

Mustelidoak animalia ugaztun eta karniboroak dira, zenbait kasutan omniboroak ere izan daitezkeelarik. Gorputz luzea dute eta hanka labur baina sendo eta azkarrak ere bai. Itxura hori aproposa zaie harrapakin zuloetan sartu eta berauek ehizatzeko.



Erbinudea

Gehienak gautarrak dira, egutiarrak ere badagoen arren. Euskal Herrian nahikoa talde arrunta da eta espezie ugari bizi dira gure lurretan, esate baterako, erbinudea (comadreja), erbinude zuria (armiño), bisoi europarra, ipurtatsa (turón), lepahoria (marta), lepazuria (gañduña), azkonarra (tejón) eta igaraba (nutria).

Oso animalia erasotuak izan dira historian zehar beraien larrua dela eta, bereziki bisoia, erbinude zuria eta lepahoria.

Azter ditzagun gure inguruan arruntenak ditugun hiru espezieak:

Erbinudea (*Mustela nivalis*):

Europa osoko ugaztun karnibororik txikiena da. Bizkarralde gorrix-

ka eta sabelalde zuria dituen animalia honek baserritarren estimazioa lortu du arratoi, sagu, sator eta hainbat ornogabetaz elikatzen delako. Berez baso eta sasi artean badabil ere, ne-guan gizakiarengana hurbiltzen da. 4 eta 7 urte artean bizi ohi da. Anek-dota bezala aipatu ura ez duela batera atsegin. Animalia egutiarra da.

Lepazuria (*Martes foina*):

Gorputza + burua: 35-40 zm.
Isatsa: 13-15 zm. Pisua: 500-1500 g.

Ilaje arrea du eta sabelalde zuria erakusten digu gauero bere bakardadean. Gustoko ditu gizakiak eraikitako txokoak eta sarri leku hauek aukeratzen ditu bere habia egiteko. Ornodun txikiak jaten ditu gehienbat baina atsegin zaio bere dieta fruitu,

arraultze eta ornogabeez osatzea ere. Euskal Herri guztian oso arrunta da.

Azkonarra (*Meles meles*):

Gorputza + burua: 67-80 zm.
Isatsa: 12-19 zm. Pisua: 6,5-7 kg.

Hau da talde honetan salbuespen nabaria, izan ere beste animaliak baino askoz haundiagoa denez ezin du harrapakin zuloetara sartu. Ondorioz omniboro bihurtu da, hau da, denetik jaten du. Gautarra denez, berak egindako zulo eta galeriatan pasatzen du eguna. Azkonarrak gorputz sendo grisa eta hanka labur beltzak ditu. Buru zurian begiak estaltzen dizkioten bi marra beltz ere ageri ditu.

Mikel Arroiabe



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

GUREA

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

PAGALDAI Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



KIUB

Bezeroari informazioa, babesu eta laguntza emateko sortutako Udal zerbitzua

KIUB, Aretxabaleta eta Eskoriatzako kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoa 1984. urtean hasi zen bere zerbitzua eskaintzen. Bezeroak dituen eskubideen aurrean informazioa, laguntza eta orientazioa ematea ditu helburu. Era berean kexa eta erreklamazioen aurrean bitartekari lana egiten du.

Etxe bat erosteko zein pausu jarraitu behar diren, bidai agentziek nola funtzionatzen duten, edo eta bezeroaren kexen aurrean, etxeko aparatuen bat ez digutela behar bezala konpondu, aseguru etxeak ez digula ondo erantzun, kasu hauetan ez jakintasuna izaten da nagusi eta sarritan ez da nora jo jakiten.

Horrelako kasuetan bezeroari informazioa, laguntza eta aholkua emateko Udalak dohaineko zerbitzua eskaintzen du. KIUB, Aretxabaleta eta Eskoriatzako kontsumitzaileen elkarte 1984. urtean hasi zen bere zerbitzua eskaintzen.


Martin Garai da zerbitzuaren arduraduna. Urte askotako esperientzia du Martinek Udal bulegoan, baina oraindik ere kasu berriak azaltzen direnean gai berrien inguruko legeak topatu eta ikasi behar izaten ditu. "Kontsumitzaileen mundua zabala eta konplexua da eta honek gai askotan egunean jarri beharra eskatzen du".

Bitartekari lana

Etxebizitza da bezeroari arazo gehien sortzen diona, etxebizitzaren alokairuak esaterako. Era berean erreparazio tailer, aseguru etxeen kontratu, kotxe aseguru eta bidaia agentzietako kexak ere ugari jasotzen ditu Martinek.

Baina zein pauso jarraitzen dira behin bezeroaren kexa jaso eta gero? Behin bezero baten erreklamazioa jaso eta aztertu ondoren, beste alde jakinaren gainean jarriko da. Era berean, honi ere eskubidea emango zaio bere ikuspuntuari buruzko idatzia egin dezan.

Hasiera batean telefono edo karta bidez irtenbide bat bilatzen saiatzen da alde biek. Hau egin ondoren bi



"Kontsumitzaileen mundua zabala eta konplexua da eta honek gai askotan egunean jarri beharra eskatzen du"

"Etxebizitza, erreparazio tailer eta aseguru etxeetako arazoak dira bezeroek gehien erreklamatzeko dituztenak"

aldeak elkartu eta bitartekari lana eginez bata eta bestearen argumetuak entzun eta akordio batera heltzea da helburua. Bitartekari lan honetan bere eskuetara heldu diren arazo gehienak konpondu direla azaltzen du Martinek. "Normalean kasu gehienak hemen bukatu izan dira. Bi aldeak akordio batera heltzen dira eta dagokion akta idatzi eta euren adostasuna erakutsiz sinatzen dute".

Hau ez bada gertatzen, erabakia hartzea hirugarren pertsona batzuen esku geldituko da, kasu honetan, autonomi elkarteko edo probintziako arbitraje elkargoaren esku. Horretarako bi aldeek izena emanda egon beharko dute arbitraje elkargoan eta bien baietza beharko da. Maila honetan, bi alderdiek jarritako argumentuak eta probak aztertuko dira eta horren arabera hartuko da erabakia. Kasu gogorak edo zailagoak direnean eta Udal bulegoan ezin direnean konpondu Eusko Jaurlaritzako kontsumo sailera bialtzen da expedientea, kasua beraien esku geldituz.

Martin Garaik, azaldu digunez, herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dute zerbitzua, baina oraindik zerbitzua ezagutzen ez dutenak asko dira. "Komeni da jendea horrelako zerbitzuak erabiltzera ohitzea. Kontsumitzaileak eskubide batzuk dituela jakin behar du eta edozein zalantza aurrean informazio edo aholkulartzarako hemen gaituela".

HB gobernutik kanpo

Komunikabide guztietan oihartzuna izan du azken aste honetan batzokia eraso eta erre ondoren izandako gertakizunak. Astebeteko hausnarketarako epearen ondoren, joan den astelehenean jakitera eman zuen Juan Antonio Rodriggez alkateak, HB kanporatua izan zela Udaleko gobernutik, EAJ, EA eta PSE-EEK eraso salatu eta HBk ez zuelako hala egin.

Bazirudien dena nahiko lasai zegoela udaletxean, legealdi hasieran izan ziren tira-biren ostean urte eta erdi pasatu ondoren. Hala ere, aurreko urriaren 25ean batzokiari egindako eraso gogorak, egoera belztu zuen. Gertatutakoari errepasso laburra eginez, EAJ, EA eta PSE-EEK gaitzetsi egin zuten batzokiari egin zitzaion eraso, ez ordea HBk. Egoera honen aurrean, Juan Antonio Rodriggez alkateak, HBk gobernu batzordean jarraituko zuen ala ez erabakitzeko, astebete inguruko epea jarri zuen erreflexiorako.



Astelehenean alkateak komunikabideen aurrean prentsaurrekoa eman zuen unea.

Kargu aldaketak

Astebeteko epearen ondoren, joan den asteleheneko ekitaldira komunikabide ugari agertu ziren, bai prentsa idatzikoak eta bai ikusentzuneakoak. Juan Antonio Rodriggez, astean zehar egindako bileren ondoren HB kanporatua izan zela adierazi zuen.

HBk eraso "sinez sentitzen" zuela esaten zuen komunikatua atara zuen, baina alkatearentzat hau ez zen nahikoa izan. "Lehenago edo beranduago egoera honek heldu behar zuen. Ordua da horrelako ekintzak salatzen hasteko" izan ziren alkateak esan zituen berbak.

Honekin batera Gobernu Batzordearen osaketa berria aipatu zuen, honek, aurrera begira lan haundia egin beharko zuela azpimarratuz.

Alkateak irakurri zuen alkatetza dekretuan, Angel Bergaretxe, gobernu batzordeko 3. alkateordea kargutik kendu eta honen lekuan Koldo Azkoitia jarri da. Era berean, orain artean Hezkuntz eta hizkuntz normalkuntzarako arduraduna izan

den Angel Bergaretxeren kargua Koldo Azkoitiak ordezkatu du.

Batzordea utzi dutenak honako hauek dira: Angel Bergaretxe, Luis Errasti, Jesus Kortabarria eta Mikel Otero. Ardura berriak hartu dituztenak, berriz, Jesus Akizu, Koldo Azkoitia, Lorenzo Fernandez eta Adolfo Etxebarria dira. (Kargu aldaketak hobeto zehazten dira ondoko laukian).

Kargu aldaketak aipatu ondoren alkateak lanean gogor jarraituko zutela azaldu zuen, "ardura berriak hartu dituzten zinegotziek, lan asko egin beharko dute; udaletxe honetan lan egingo duen jendea behar dugu eta". Era berean gaineratu zuen, HBko zinegotziak udaletxe honetan lan egiten jarrai dezaten nahiko nuke, "hala eskatu diet pertsonalki".

Kargu aldaketak:

Lehengo batzordeetako zinegotziak:

Ingurugiroa: Mikel Otero.

Hizkuntz normalkuntza: Angel Bergaretxe.

Obra eta zerbitzuen gestioa: Luis Errasti.

Auzoak: Jesus Kortabarria.

Aipatutako batzordeetako zinegotzi berriak:

Ingurugiroa: Lorenzo Fernandez.

Hizkuntz normalkuntza: Jesus Akizu.

Obra eta zerbitzuen gestioa: Koldo Azkoitia.

Auzoak: Adolfo Etxebarria.

Gai honetan inplikaturako alderdi politiko desberdinen buruei, iritzia eskatu diegu azken asteetan gertatutakoaz. Ondoren azaltzen digute:

Angel Bergaretxe (HB)

“Lanean jarraitzeko asmoa dugu, kaleratutako komunikatua horrela aipatu izan dugu eta eurari ere pertsonalki esan diegu. Baina, bestalde guri exigitu zaiguna beste batzuei ere exigitzea nahi genuke. Hildo honetan, tristea da plenoetara agertu ez den pertsona batek, nahi izan duen ametsa lortzea. Galdera moduan botako nuke: berba batek bi urte eta erdiko lanak baino gehiago balio al du? Beste milaka gauza gertatu dira eta ez dira salatu, zergatik diferentzia hori gurekin? Guk sentitzen dugu gertatutakoa. Aurrerantzean tratu bera izatea espero dugu eta gure proposamenak kontutan hartzea”.

Juan Antonio Rodriguez (EAJ)

“Orain artean oso ondo konpondu gara eta penagarria izan da hau gertatzea. Egia esan erabakia hartzea ez da zaila izan, gure artean tentsiorik ez delako egon eta denok ulertu dugulako egoera oso konplikatu zela. Uste nuen salatuko zutela. Esan dute zinez sentitzen zutela gertatutakoa baina bada garaia horrelako gauzak salatzen hasteko.

Azkenean ez da inorentzat erraza izan baina espero dut HBko zinegotziek udaletxe honetan lanean jarraitzea.

Horretaz gain, ardura berriak hartu dituzten zinegotziek ere lan asko egin beharko dute. Azken finean gure lana herriaren alde lan egitea da.”

Adolfo Etxebarria (EA)

“Udaleko gobernu batzordeak urriaren 27an izandako bilkuran ateratako komunikatuarekin bat gatoz. Uste genuen HBk batzokiari egindako erasoak salatu egingo zuela baina gure partetik sentitzen dugu gauzak horrela gertatu izana. Aretxabaletako Udalak aurrera jarraitzeko erakutsi duen armonia ikusita, Euskal Herriko eredu izan da eta tristea da honelako gertakizun batek hori apurtzea. Inork ez dugu hori nahi izan. HBk Udalean lanean jarrai dezan nahi dugu, eurak daukaten esperientzia guztiontzat lagungarri izan dadin eta aurrerantzean guztion artean herriaren alde lan on bat egin dezagun.

Iñaki Pierrugues (PSE-EE)

“Herriaren alde lanean jarraitu behar dugu orain artean egin dugun moduan. Horren erakusgarri da egin ditugun proiektuak eta lortutako dirulaguntzak, nahiz eta batzordearen banaketan alboratuak izan ginen, Aretxabaletako herriak dakien bezala.

Plenoetara gure asistentzi falta nabariagoa izan da beste taldeena baino, bi zinegotzi bakarrik egon garelako; hala ere, gure asistentzi falta ez da besteena baino haundiagoa izan.

Demagogikoa dirudi HBk herriarendako lan egin duela esatea, besteok egin ez bagenu bezala, herrian gertatzen diren erasoak salatzea ausartzen ez den bitartean.

Hiru komunikatu erasoen inguruan

Urriaren 25eko Batzokiko erretaketaren inguruan hiru komunikatu desberdin heldu dira Aretxagazetako erredakziora. Aretxabaletako Herri Batasunak erasoak zinez sentitzen duela adierazten du eta aurrerantzean horrelakoak gertatzea ez dela bere nahia ere azaltzen du. Gaur egun alderdi desberdinek duten jarrera politikoan kokatzen dute gertatutakoa, konkretuki insumisioen kriminalizazioa, errepresio basatia, presoaren egoera, tortura eta abar aipatzen dute, zehazki Kepa Urraren tortura kasua.

Herrian gehiengoak izan arren HB baztertua izan zela aipatzen du komunikatuak, hala ere, herriaren alde lana egiten jarraitu duela dio, nahiz eta “abertzaleen arteko lan

harremana apurtzea beste interesik ez dute izan ordea batzuk. Horien artean PSOEko Pierrugues jauna, zeina legegintzaldi honetan pleno oso gutxitara azaldu den”.

Bestalde, Elkarrik bidalitako komunikatua EAJri elkartzuna adierazi nahi dio eta era berean urriaren 25ean alderdi horren egoitzaren kontra egindako sabotaje ekintza gaitzetsi. Gainera gogoratzen du presio politikoen gaitzetik Aretxabaletako Udaleko batzordeetan EA, EAJ, HB eta PSE-EEK parte hartu dutela herriaren alde lan eginez. Armonia horrek, Elkarriren ustez, argi berdea eman die euskal presoek giza eskubideen alde eta autodeterminazioaren alde aurkeztutako mozioei. Azkenik

“isolamendua ezagutzen dugu eta ez du onik ekartzen” aipatzen da.

Guregana heldutako hirugarren komunikatuaren hildo nagusienak aipatzen dira ondoren nahiz eta sinatu gabe egon.

“Ekintza honen inguruan batzuen edo besteen iritzien artean, egileen azalpena ezinbestekoa dela pentsatzen dugu”, aipatzen da lehendabiziz. Honekin batera, ekintza Kepa Urra herriko preso politikoaren Basauri-Cadiz traslardoan enmarkatu nahi dutela diote, izan ere 100 km-tik 1.200 kilometrotako distantziara eraman dute. Traslardoaren erantzuletzat PP hartzen da eta aipatzen denez komeni zaienean, PP-EAJ harremanak zutik jarraitzen duela uste dute.

Areto-futboleko lehen mailako prestatzaile ikastaroa

Gipuzkoako Areto Futboleko Federakuntzak, Areto-futboleko lehen mailako prestatzaile ikastaroa antolatu du. Abenduaren 3an hasita, 60 ordutako iraupena izango du. Zapatuetan 9etatik ordu 2etara eta eguaztenetan 7etatik 9etara, Oñatiko Zubikoa kiroldegian emango da. Ikastaroan parte hartzeko 16 urtetik gorakoa izatea eskatzen da. Prezioa 15.000 pezetakoa da eta Deba Garaiko edozein kirol zerbitzuetako bazkideentzat 12.000 pezetakoa. Izen ematea azaroaren 28a baino lehenago egin beharko da Oñatiko Zubikoa kiroldegian ordainketa agiriarekin batera.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Azken egunotan inguruko bazterrak korrikalariz beteta ikusi ditugu. Gehienak behintzat Behobia-Donostia lasterketarako azken entrenamendu saioak egiten.

Azaroaren 8an Behobia-Donostia lasterketa herrikoira joateko autobusa antolatu da herritik. Hamabost lagunek izena eman dute joateko

baina honetaz gain euren kontu joango diren atxabaltarrak ere asko izango dira. Autobusean joango direnek bazkaria izango dute ondoren Aian. 20 kmtako ibilbidea duen lasterketak, aldaketa txiki bat izango du aurten. Lasterketa Bulebarrean amaitu beharrean, Maria Kristina hotelaren atzealdean amaituko da. Iaz 37 atxabaltarrek hartu zuten parte eta aurtengora ere herritar asko animatuko da.



UDAK etxean bai baina kanpoan ez

UDA kili-kolo dabil aurtengo denboraldian. Etxean partidu guztiak irabazi arren, kanpoan, hamabost puntutatik bakarra atera du. Hau dela eta, klasifikazioaren erdialdean aurki dezakegu Alberto Perezen taldea, 11. postuan eta 13 punturekin. Irunen jokaturako azken partiduan, ez zuten emaitza onik lortu. Josebak penaltis gola sartu arren, Aretxabale-

takoak ez ziren partidua irabazteko ez berdintzeko gai izan, azkenean 2-1 emaitza lortuz.

Esan beharra dago hainbat jokalaririk berriekin hirugarren mailara igotzea zela aurtengo helburua, baina zail daukate horrela jarraituz gero. Datorren astean Aloña Mendi izango dute aurkaria. Oñatikoak bigarren postuan daude eta UDAk baja garrantzitsuak ditu, Kepa Azkue lesionaturik dago eta Gordobil eta Eriko txartelaz zigorturik. Partidu gogorra izango da eta beraz futbolzaleok animatu zaitezte partidua ikustera.

Murrukixorekin mendi astea

Udazkena eta azaroarekin batera Murrukixo M.E.ak mendi astea antolatu du azaroaren 20tik 30era. Mendiarekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatu dituzte aurtengo urterako ere: proiektzioak, mendi bizikleta irteera... Besteak beste, honako proiektzio hauek botako dira: Indonesia, Kartens Piramidea Jose Ramon Agirrereren eskutik; Izotza eta elurra Pirineotan, Joseba Ugaldek; Chamonix Zermatt-eski travesia; Felipe Uriarteren Pamir-eko bihotzean eta azkenik Iñurrategi anaien proiektzioa, "Broad Peak".

Neguko kirol erropetan materiale teknikoak



Esko Sport

Intxaurtxueta, 5 71 52 96
ESKORIATZA





Larunbat arratsaldetan zabalik

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 77 03 08



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

Mertxe Lopez: "Behobia-Donostian lasterketa bukatzea izango da nire helburua"

Mertxe Lopezek bigarren aldiz parte hartuko du datorren domekan ospatuko den Behobia-Donostia lasterketan. Orain hiru urte izandako esperientziaren ondoren aurten osterara ere animatu da. "Merezi du lasterketa egiteak, egoten den giroagatik batez ere".



• Nola animatu zara aurten Behobia-Donostian parte hartzera?

Orain hiru urte joan nintzen lehenengo aldiz eta bertako giroa ikusita osterara ere animatu naiz. Benetan merezi du horrelako ekintza batean parte hartzeak.

• Ibilbidea ezagutzen duzu hortaz, zer moduzkoa da?

Aldapa asko ditu eta azkenerako gogorra egiten da. Donostiara sartzekoan esaterako oso nekatuta zaudenez Miracruzeko aldapa igotzea gogorra egiten da. Bukaeran horrenbeste jenderen artean indarberritu egiten da.

• Lasterketarako gertatzeko gogor entrenatu duzu?

Bai. Urte guztian gimnasia egiten dut eta takarraran ere ibiltzen naiz baina nahiko lasai. Irailetik ona, berriz, gehiago eta gogorrago entrenatzen ibili naiz. Asteaz bost aldiz korrika egiten dut, batzutan lasaiago eta beste batzutan gogorrago. Normalean

trenbidean gora eta behera ibiltzen naiz.

• Zein izango da zure helburua?

Batzuk denbora ona egitera joaten dira baina nire asmoa lasterketa amaitzea eta ondo pasatzea da.

• Zer da lasterketatik gehien gustatzen zaizuna?

Giroa, eta egun osoa orokorrean. Gainera jendea mozorrotu egiten da eta primerako giroa sortzen da. Partehartzaile kopuru handia egoten da baina proportzioan neskak oso gutxi izaten garenez jendeak asko animatzen gaitu.

Aurten sei lagunekoko taldea joango gara eta bertan geldituko gara bazkaltzera. Azken finean egun osoko irteera bihurtzen da.



Iñurrategi anaiak Cook mendira

Erronka berri baten aurrean ditugu Iñurrategi anaiak. Oraingo honetan, Nueva Zelanda aldera irtenak dira, "Al filo de lo imposible" programarako lan taldea osatuz. Bi anaiak Juanjo San Sebastian, kamara bat eta zuzendaria izango dira espediziozko partaideak. Cook Zelandako mendirik altuena da 3.764 metroekin. Oso mendi altua ez izan arren, baditu bere zailtasun teknikoak. Gainera, grabaketa lanek espedizioaren igoera lana astunduko dute. Hilaren batetik hamalaura izango dira Zelanda Berrian eta mendiko igoera bi egunetan egiteko asmoa dute. Bertatik itzuli ostean, espedizio berri bat izango dute aurrez-aurre. Kasu honetan, Josu Bereziartuarekin batera Manaslu mendirako espedizioa osatuko dute. Azken hau, abenduaren 12tik otsailera bitartean egiteko asmoa dute. Bederatzigarren zortzimilakoa izango da.

Ezkutu
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI


Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABAleta



MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76



“Auzokideen artean mugarren inguruko tirabirak sortzen dira gehienbat”

dira eginbeharrekoak. Beti udaletxean eskatzen ibili behar eta honek dirurik ez dagoela esaten du gehienetan.

• Zer moduz konpontzen zara auzokideekin?

Auzokideekin ez daukat kexarik, ondo konpontzen gara normalean. Sortzen diren tirabirak mugarren ingurukoak izaten dira normalean.

• Zelakoa da baserriaren egoera gaur egun?

Baserrian lan asko eta astuna dago eta gutxi ematen du. Baserrian ez dago etorkizunik.

• Zer aldatuko zenuke baserrian?

Lan lotuak kendu egingo nituzke eta agian basoko ganadua jarri, inguruko zelaiak garbi edukitzeko eta ongarrizko.

• Baserria alde batera utzita, bisitatu duzun zein leku gustatu zaizu?

Leku gutxitan egon naiz, Nafarroa iparraldea gustatu zait gehien, Leitza alde.

• Zer egiten duzu denbora librean?

Herriko inguruak bisitatzea gus-

tatzen zait. Kirola eta pelota gustatzen zait. UDAko futbol partiduetara ere joaten naiz.

• Mezetara joaten zara?

Bai, ahal dudanean domeketan.

• Galartzako zein leku bisitatzea gomendatuko zenuke?

Eliza eta dorretxetik Muru mendira bitarteko ingurua oso polita da.

• Ordenadore, idaz makina edo eskuz?

Nik eskuz idazten dut. Ordenadorea badaukagu etxean baina nik ez dakit erabiltzen.

• Kalera askotan jeisten zara?

Bai, beti egoten da eginbeharrekorik.

• Etxeko errekauek zuk egiten dituzu?

Errekauek andreak egiten ditu normalean.

• Gaztainerik jan duzu aurten?

Bai, geuk jasotakoak jan ditut.

• Siestarik bai?

Bai, normalean ordubete inguru.

• Bete ez zaizun ametsa?

Gaztetan denbora gehiago izan banu ikastea gustatuko zitzaidakeen, musika ikasiko nukeen, soina esaterako.

Galartzako Errartena baserrian bizi da Luis Gastañaga auzo alkatea. Hamar urtetako esperientziak eman diote zer ikasia zeregin horretan. “Auzo alkateontzat beti egoten da eginbeharrekoren bat, arazoak sarri sortzen dira eta”.

• Zenbat urte egin dituzu auzo alkate?

Orain bi urte, baina lehenago zortzi urte egin nituen.

• Lan asko egin beharra egoten da?

Ez da lan haundia, baina beti sortzen

K
O
M
I
K
A

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABALETA

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



Z

ineak historia luzea du gure herrian, askok gogoan izango du Gerra aurretik Otasuneko etxean ematen ziren zine emanaldiak, baita bertan egiten ziren antzerkiak ere.



Gero "Acción Católica" elizako taldeak hartu zuen zinearen ardura eta "Salón Parroquial"-a zen pelikulak botatzeko erabiltzen zen lokala.

1956-57 urte inguruan gaur egungo Zaraia zinema inauguratu zen. Elizak eraiki zuen "Acción Católica" taldearen ardurapean. Lau milioi inguru gastatu zen eraikuntza eta instalazioetan, Matias Uribesalgok ondo gogoratzen du hurrengo urteetan hau mantentzeko egin behar izan zuten borondatezko lan guztia. "Eskerrak garai onak izan zirela, eta zinea jendez gainezka egoten zena. Gure sakrifizioak balio izan zuen hau amortizatzeke". Urte haietarako kantitate handia zen lau milioi. Gainera ez zen bankuetara krediturik eskatu, parrokia inguruan mugitzen zen jendeak jarri zuen dirua. "Pertsona batzuk gudan jarritako konfiantzari esker eraiki zen. Ardura garrantzitsua zen hori amortizatzea guretzat. Jakina, gero "erreitto" eta guzti bueltatu zitzaaien dirua hortik urte batzutaran".

Zaraia zinema 79. urte inguruan udaletxearen eskuetara pasatu zen horren truke udalak Loramendi kaleko lokala eman zion parrokiari.

Pelikulak astean hiru egunetan botatzen ziren: eguen, zapatu eta domeketan. Don Angel parrokoak moralitatea errespetatu beharra zegoela esaten zuen, "umeentzako pelikulak garbiak izan behar zuten eta 3-R-ko pelikularik ez zuen onartzen". Matiasek oraindik ere gogoan ditu Don Angelen berbak: "pisaberdeak joan daitezela hemendik kanpora".

Dana dala, 3-Rko pelikularik eman ez arren, zineak estimazio handia zuen, eta takilak oso onak izan ziren hasierako dozena bat urtetan. "Eskerrak garai haiek aprobetxatu genituena zinea amortizatu ahal izateko" errepikatzen du Matiasek.

Argazkian: Zineko proiektorearen inaguraketa ekitaldia. **Ignacio Lopez de Uralde, Jose Ignacio Arenaza, Don Angel Garmendia, Mikel Zuazabeitia.**

Informazioa: Matias Uribesalgo

Argazkia: Duni Zuazabeitia



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

Egun ilunak



M. J. Arzak

Asko izango ditugu hemendik aurrera, baina zuek lasai ez bainabil azkenengo gertakari politikoen inguruan berbetan. Dagoeneko ordu aldaketa egin dugu eta horrekin batera negua pasatzeko gertatzen gara. Neguko arratsalde eta gau hotzetan eskertzen da leku bero eta atsegin bat izatea, horregatik asko pozten nau zinea berriz martxan jartzeak.

Zinako arduradun berriak **Ibai Bengoa** eta **Igotz Urzelai** izango dira. **Mari Jose Fuensanta**, berriz, takilako eta garbitasun lanekin arduratuko da.

Arte kontuekin jarraituz koruko kontuak aipatuko ditugu ostean. **Abesbatzekoak** Guridiren "El caserio" lana entsaiatzen ari dira gabonetarako. Azpeitiako abesbatzarekin batera abestea da euren

asmoa. Lan txukuna egingo dutela ziur egon, beste batzuk ikusteko gertu egongo gara.

Baina hau ez da musikarekin lotuta kontetako daukagun notizi bakarra. Herriko akordeoi orkestra biak Strasburgon izan ditugu eta bertakoak sari barik utzi dituzte. **Luis Mari Elkorobarrutiak** zuzentzen duen taldeak lehen saria irabazi du eta **Juan Jose Orobengoaren** taldeak bigarrena. Zorionak bi orkestrei. Horrenbeste sari non gorde ez dute jakingo laster. Bueltan Parisen merezitako geldialdia egin zuten.

Bidai hori polita iruditu bazaizue, niri **Felix eta Alberto Iñurrategi** egiten ari direna gustatu zait. Zelanda Berrira joan dira bertako mendirik altuena igotzeko, Cook mendia. Hango aldean udaberria izango da orain eta bertako paisaiak ikusteko modukoak izango dira. A ze inbidia! Ni ere gustora joango nintzateke haien maleta batean sartuta.

Baina hara ezin naizenez joan domekan Donostia aldera joango naiz. Bertan Behobia-Donostia lasterketan hartuko dut parte. Hurrengo alean klasifikazioa begiratzen baduzue beharbada han aurkituko nauzue, lehenengo hamarren artean edo...

Eta bukatzeko nostalgia kutsua duen notizi batekin emango diot amaiera gaurko honi. Arkarazon San Millanak ospatuko dituzte aurki. Garai batean haiek bai zirela jai edarrak!

A R E T X A Z O K A

LANA

- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Telefonoa: 79 03 10.
- Ingeles, gazteleraz eta euskerazko itzulpenak egiteko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 25 75.
- Pisua alokagai dago Bizkaia kalean. Harremanetarako deitu: 79 57 37 telefonora (6etatik aurrera).
- Pisu bat alokatuko nuke. 71 42 86 Jabierregatik galdetu.
- Zeramika tailerra ipintzeko lokala alokatu edo antzeko lanbidea duen norbaitekin banatuko nuke. 71 42 86. (Jabier).

ETXEBIZITZA

- 160 m²-ko pabiloi industrialak alokatzen da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono huetara: 79 28 41-79 74 37.

DENETARIK

- Aretxaletan ileapaindegi mixtoa alokagai dago. Solarium eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m²takoa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.
- Emakume erloju bat galdu da. Erlojuaren atzean Jasone jartzen du. Urriaren 13tik 15era bitartean. Deitu mesedez 79 24 19 telefonora.
- Betaurreko graduatuak galdu nituen. Urriaren 11ko gauean. Aurkitu dituenak deitu mesedez 79 75 35 telefonora.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.



Zinea Zaraia zineman

Astebukaera honetan zine emanaldiak hasiko dira Zaraia zineman. Hori dela eta txoko honetan zineko pelikulen komentarioek izango dute lekua aurrerantzean.

HOMBRES DE NEGRO

EEBB 1997

ZUZENDARIA: Barry Sonnenfeld.

AKTOREAK: Tommy Lee Jones, Will Smith, Linda Fiorentino, Vincet D'Onofrio.



EEBBetako agentzia sekretu batek lurrean bizi diren estralurtarrak akatzeko misioa du. Gure bi protagonistak "Beltzez jantzitako gizonak" deritzan agentzia horren kideak dira. Euren helburu bakarra, gurekin batera kamuflatuta bizi diren alienigenak aurkitu eta suntsitzea da. "Hombres de negro" ez-ohiko komedia ikonoklasta dugu, zehatza eta efektu berezi ikusgarriez hornituta. Hasiera hasieratik gure ikusmina pizten du eta pelikulak abiadura hartzen duen ala (batez ere lehenengo ordu erdian) txanda eta adar jartzeak gero eta barregarriagoak egingo zaizkizu. Gero efektu bereziek, primerakoak diren arren, eta monotoniak komedia, surrealismo eta ustekabearen lekua hartuko dute. Dena dela oso gustora ikusten den karrikatura dugu "Hombres de negro". Eta merezi du zinera joatea, eskeintzen zaizkigun dozena inguru gag zoragarriekin barre batzuk egiteko besterik ez bada ere.

Z A R A I A Z I N E M A

Azaroak 7, 8, 9, 10

HOMBRES DE NEGRO

Azaroak 9 (Umeentzat)

TRINIDAD Y BAMBINO

Azaroak 14, 15, 16, 17

CORN AIR

Azaroak 16 (Umeentzat)

"LIBERAD A WILLY 3"

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Oharra: Azaroaren 21ean ez da zine emanaldirik egongo proiektzioa dagoelako.

ORTOPEDIA **ORTO + LAGUN**

Nekaturik edo hankako minez zabiltz?

- Neurrira egindako plantila bereziak.
- Lanerako zuekoak.
- Oinetako erosoak.


Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

Aretxagazeta

**Zure
publizitatea
hemen**

79 01 05

Liburutegiko txokoa



Stratos

Miguelanxo Prado

Norma editorial, 1996

Komiki honetan Pradok 2.100 urtearen inguruko gizarte post kapitalista eta honen amaierari buruzko erre-flexio bat egiten du elkarrekin lotura duten istorio desberdinez osaturiko ipuin honetan. Etor-kizun hurbil hau aurkeztuz gainera gure gaur egungo gizartearen akatsak agerian jartzen ditu gai desberdinak ikutuz kapitulo bakoitzean. Komikizaletasunaren beherakadaren ondorioz gutxi dira azken aldirik argitaratzen diren liburuak, baina Pradori esker oraindik komiki onak irakurtzeko aukera badagoela argi geratzen da. Liburutegiko helduen komikien sailean autore beraren "Trazo de tiza" eta "Fragmentos de la enciclopedia delfica" liburuak ere aurkituko dituzu beste askoren artean.

Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA



Modan
dagoen guztia

Iparagirre, 4
Tfnoa. 79 21 24

Orain
likidazioan

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

Bedarreta
taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tfnoa: 79 91 84
Aretxabaleta

BR Amaia-Berri, S. L.
Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea Tfno-Faxa: 77 06 49
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Pelikularik hoberenak

DON
BIDEO

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

AZAROA

7, 8, 9, 10

ZINEA

Zaraia zineman "HOMBRES DE
NEGRO". Umeentzat "TRINIDAD Y
BAMBINO".

8

zapatua

KONTZERTUA

URBIL eta TXOMIN ARTOLA.

Arrasateko Amaia antzokian
arratsaldeko 8etan. Aita Menni
hospitalak antolatuta. Sarrera 500
pezeta.

9

domeka

ZINEA

Umeentzat "TRINIDAD Y
BAMBINO". Arratsaldeko 5etan
Zaraia zineman.

14, 15, 16, 17

ZINEA

Zaraia zineman "CORN AIR".
Umeentzat "LIBERAD A WILLY 3".

14, 15

ANTZERKIA

TANTTAKA taldea "Shakespeare
dena (gutxi gora behera)". Arrasateko
Amaia antzokian gaueko 10,30etan.
Sarrera 800 pezeta.

16

domeka

ZINEA

Umeentzat "LIBERAD A WILLY 3".
Arratsaldeko 5etan Zaraia zineman.

20

eguna

PROIEKZIOA

Jose Ramon Agirre "Marron"ek
INDONESIA, KARTENS PIRAMIDEA.
arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

21

egukotxa

PROIEKZIOA

IZOTZA ETA ELURRA PIRINEOTAN.
Joseba Ugaldek emango du. Gaueko
10etan Zaraia zineman.

22, 23

OPERA

MARI ERRAUSKIN OPERA. Juan
Arzamendik konposatutako operaren
estrenoa. Arratsaldeko 7,30etan
Arrasateko Amaia antzokian. San
Viator ikastolak antolatuta.

AZAROA

Mendi astea

Azaroaren 20tik 30era.
Antolatzailea: Murruxio M.E.a

22

zapatua


**MURRUKIXO M.E.aren X. urteu-
rrena.** Arratsaldean ekintza bereziak.

27

eguna

PROIEKZIOA

CHAMONIX ZERMATT ESKI TRABESIA.
Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.



28

egukotxa

PROIEKZIOA

PAMIREKO BIHOTZEAN. Felipe
Uriarteren eskutik. Gaueko 10etan
Zaraia zineman.

29

zapatua

BTT IRTEERA**MENDI IRTEERA****PROIEKZIOA**

**IÑURRATEGI ANAIEN PROIEK-
ZIOA. "BROAD PEAK".** 7,30etan
Zaraia zineman.

30

domeka

DIPOSITIBA EMANALDIA

Loramendi elkarteak **HORMAKO ESKA-
LADA** diapositiba emanaldia antolatu
du. **Joxerra Eskibel** eskoriatzarra
izango da emalea. Azaroaren 12an
izango da arratsaldeko 7etan
Loramendiko lokalean.

BEHARREZKO
TELEFONOAK**Aretxabaleta**

• Almen	71 49 64
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

